

## I. ERANSKINA

### ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA EGITEKO TXANTILLOIA

#### ANEXO I

### PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA ANUAL DE ÁREA O MATERIA

#### 2016-17 Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa *Programación didáctica anual/de curso 2016-17*

<b>ikastetxea:</b> <i>centro:</i>	IES URIBEKOSTA (PLENTZIA)	<b>kodea:</b> <i>código:</i>	
<b>etapa:</b> <i>etapa:</i>	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	<b>zikloa/maila:</b> <i>ciclo/nivel:</i>	4.DBH
<b>arloa/irakasgaia:</b> <i>área / materia:</i>	ERLIJIOA		
<b>osatutako arloak/irakasgaiak</b> <i>materias integradas/ áreas</i>			
<b>diziplina barruko oinarriko konpetentzia elkartuak</b> <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	1.Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia 2. Matematikarako konpetentzia 3. Zientziarako konpetentzia 4. Teknologiarako konpetentzia 5. Konpetentzia sozial eta zibikoa 6. Arterako konpetentzia 7. Konpetentzia motorra		
<b>irakasleak:</b> <i>profesorado:</i>	Izaskun Zeberio	<b>ikasturtea:</b> <i>curso:</i>	2016/17

#### Zeharkako konpetentziak / *Competencias transversales:*

1. Ahozko komunikaziorako, ahozkoa ez den komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
2. Ikasten ikasteko eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
3. Elkarrekin bizitzeko gaitasuna.
4. Ekimenerako eta izpiritu ekintzailerako gaitasuna.
5. Izaten ikasteko gaitasuna

**helburuak**  
*objetivos*

**ebaluazio-irizpideak**  
*criterios de evaluación*

4.D.B.H.ko OINARRIZKO GAITASUNAK

- Hizkuntz mota desberdin erabili eta interpretatu: sinbolikoa, liturgikoa...
- Giza bizitzarekiko elkarrizketan aritu.
- Giza inguruan parte hartu, jarrera egokiak erabiliz, mundu gizakiago bat lortzeko.
- Balore demokratikoen inguruan

gogoeta egin eta Ebanjelioarekiko harremanak aurkitu.

- Hiritartasun eta demokratiko baloreak elizako Giza Doktrinan aurkitu eta bat egiten dutela ikusi.
- Erlijioitsu adierazpen artistikoa, sinbolikoa, ohitura eta bizitza ereduak ezagutu eta balioetsi.
- Ebanjelioaren ikuspuntutik norberaren kultura aztertu eta baloratu.
- Kristautasunak kulturari gehitzen diona aurkitu eta errespetatu.
- Kultura eta arteari lotuta dauzen erlijioitsu baloreak ulertu.
- Iturri desberdinetako informazioa laburtu.
- Egia eta ontasunaren alde arduratu eta jokatu
- Gizakia eta ingurunearekiko arteko arazoak auznartu eta erantzunak Elizako Giza doktrinan aurkitu.

4. D.B.H.ko HELBURUAK

- .1. Elizaren helburua eta zentzua baloratu eta aztertu gizakien zerbitzura dagoen instituzio moduan eta Kristoren Salbazioaren bitartekari moduan.
- Eliza katolikoaren xedea aztertu.
- Elizaren misterioa aztertu eta jabetu.
- 2. Sinesdunek kristau gertaera eta mezuaren aurrean duten erantzuna baloratu eta ezagutu.
- Eliza Jesusen mezuaren jarraitzailea dela jabetu.
- 3. Eliza katolikoaren moral

1. Giza moralitatearen ezaugarriak eta giza moralitasunaren oinarrizko kontzeptuak argitasunez ezagutu eta adierazi: duintasuna, balorea, legea, betebeharra eta moral ardura.

2. Legeen esanahi historikoa eta pluralitatea ulertu eta adierazi; baita pertsoneneta gizarteen balore moralak, errelatibismo eta indiferentzian jauzi barik.

3. Gaur eguneko gizarteetan ematen diren eredu kultural eta moral desberdinak ezagutu eta baloratu, beraien giza kultural aberastasuna baloetsiz.

4. Gaur eguneko arazo moraleetan izan daitezken jarrera etika desberdinak aurkitu eta adierazi modu arrazoitu batez.

5. Erlijioitsu, kultural eta nazio baldintzak ezagutu, jakiteko zelako eragina duten proiektu etiko bati atxikitzean.

6. Gaur eguneko proiektu etikoek zer gehitzen duten ezagutu eta adierazi, batez ere Giza Eskubideek.

7. Mendebaldeko sistema etikoek gehitu duten kontzeptu garrantzitsuenak ezagutu eta adierazi; batez ere askatasuna eta gizaki guztien eskubideetan.

8. Norberaren jarrera etikoak argudioen bidez eta elkarrizketaren bidez defendatu, kontrako jarrerak deuzetatzuz. Argudioak ematea jakin behar da, jarrera desberdinen aurrean, gela barruan zein giza eta senide barruan.

9. Gaur eguneko arazoaren aurrean ( biolentzia, marginazioa...) norberaren iritziak agertu informeak eginez eta debateetan partehartuz, iturri desberdinetako informazioa erabiliz, errespetuko eta solidaritateko jarrerak erabiliz.

<p>in ikaskuntza errazionala eta errebelatutako oinarriak ezagutu eta ulertu norantza bideratzen gaituen Jainkoarekiko harremanak, norberarekiko harremanak eta besteerekiko harremanak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eliza, gizartea gizatiartzeren aldekoa dela jakin eta errespetatu.</li> <li>• Morala eta fedearen arteko harremanak aurkitu.</li> <li>• Elizak gizarteari gehitzen diona baloratu.</li> <li>• Elizaren keka morala nondik sortzen den ezagutu.</li> <li>• 4.- Aztertu zeintzuk diren kristau batek izan behar dituen konpromizuak eta gizartean dauzen aukeren artean eta beste erlijioen artean zelan jartzen diren harremanetan</li> <li>• Kristau konpromezuak, gizartearen eraikuntzan nola laguntzen duen jabetu.</li> <li>• Modernitate eta fedearen arteko harremanak ezagutu.</li> <li>• Elizak zelan laguntzen digun gure hazkunde pertsonalean jabetu.</li> <li>•</li> </ul>	<p>10. Instituzio kasgelekan eta ikasgelekan antolatzen diren ekintza desberdinetan partehartu, demokratiko eta laguntzaile jarrerak erakutsiz.</p> <p>11. Jarrera pertsonal morala eta autonomoa den araudia eraikitzen joan. Ikaslea heldutasun aldi honetan, bere heldutasun morala proezua hastea espero da, etika unibertsal eta impartzialean sakonduz.</p>
--	---

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

**SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS** [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

### LEHENENGO HIRUHILABETEAN

1. Eduki multzoa: Hirugarren Mundua: arazoa eta konponbideak.

Aztertu zelakoa den Hirugarren Munduaren egoera eta zergatiak. Gaiarekin amaitzean irteera bat egingo genuke Algortako Giza Jantokia ikustera, pobrezia ere gure artean dagoela eta zelako laguntza eskeintzen den ikusteko.

### BIGARREN HIRUHILABETEAN

2.- Eduki multzoa: sexualitatea eta sexual morala (Hiesa...)

Sexualitatea pertsonaren dimentsio garrantzitsua dela ikusi eta kristau moralen ikuspegia aztertu eta norberak irizpide morala atera. Hiesari buruzko arazoa ere aztertu eta hartu behar diren neurriak.

### HIRUGARREN HIRUHILABETEAN

3.- Eduki multzoa: Gaur eguneko arazoak eta beraien kristau ikuspuntua.

ikasleek dituzten interesatik abiatu eta gaur eguneko arazo batzuk aztertu, kristau ikuspuntua bereiztuz eta beraien ikuspuntuak emanez.

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

**METODOLOGÍA** [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Erlijio eta Moral katolikoaren kurrikuluma, kristau mezuaren laburpena da, ikasleen adinera egokitzen dena, baita behar kultural eta hezkuntza eskakizunetara.

Erlijiotsu fenomenoak ikuspuntu desberdinetatik aztertzen du:

- ☐ Historiko eta kultural dimentsiotik: Historia eta kultural ondarea erlijiootsu zentzuz beterik dago eta hori aztertuz hobeto ulertuko dugu gaur eguneko mundua.
- ☐ Gizatiartze dimentsiotik: Erlijio Katolikoak pertsona bere osotasunean bilakatzen laguntzen du, azkenengo galderari erantzunak emanez eta traspasatzen zabalduz.
- ☐ Moral eta etiko dimentsiotik: Erlijio Katolikoak bizitza ulertzeko modu bat eskeintzen du eta koherentziaz jokatzeko modu bat ideia, balore, sineste eta printzipio batzuei jarraituz. Beraz, lehenengo metodologiko erizpidea, ikaslearen errealitateak hasia izango da.

Hurrengo puntuetan oinarrituko da:

- Ikasleek gai zehatz bati buruz zer dakiten hasia.
- Ikasleen behar eta interesetik konektatzea.
- Ikasleei proposatu zeintzuk izango diren ikasketa berrien helburuak motibatuta egotea.
- Heziketa intentzio eta ikasgelan egiten diren ariketen artean koherentzia egotea.
- Ikasketak errealitateari aplikatzea. Horretarako beharrezkoa izango da erabiltzen den hizkuntza ikasleentzat ulergarria eta hurbila izatea. Erlijio Katolikoaren eta beste erlijioen hiztegia ulertu ahal zateko.

Bigarren metodologiko erizpidea kritikoa izango dela da: ikasleak hurrengo hau lortzea nahi dugu:

- Erlijio fenomenoak baloratzea eta gizaki guztien duintasun sagaratu errespetatzea.
- Erljioak historikoki zelako eragina duen eta kultura eta gizakiaren zati garrantzitsu bat den ikustea.
- Oinarrituko balore eta erizpide batzuk lortzea norberaren historia eta mundua interpretatzeko eta bereganatzeko.
- Munduaren ikuspegi armonioitsu bat lortzea, gure gizartean gero eta zoriontsuago, askeago eta arduratsuago izateko.

Beste metodologiko erizpidea pluralitatea da: ikasten dugunean gure ezagutzeko eskemak aldatzen eta aberasten ditugu, errealitatea hobeto ulertzeko eta aldatu ahal izateko.

**Baliabide desberdinak erabili: azterketak, debateak, erakusketak... esperientzi**

desberdinak lortzeko eta erlijioitsu edukin desberdinak izateko eta gizartean aukera desberdinak dauzela konturatzeko eta errespetatzeko.

Laugarren metodologiko erizpidea disziplina arteko ikasgaia dela konturatzea da.

o Ezin da izan ikasgai aparteko bat; beti egongo da beste ikasgaien artean lotuta. Gure kulturarekin topo egin behar dugu beste ikasgaiak esaten digutena kontutan hartuz. Batez ere, ikasleei koherentzia ematen dieten arloekin.

ERABILIKO DIREN TRESNAK ETA BALIABIDEAK.

1. Irakaslearen azalpenak.
2. Departamentuaren karpeta errekurtsioak.
3. Hirugarren Munduko informazioa, aldizkariak, egunkariak...
4. Pelikulak eta dokumentalak.
5. Informatika gelako internetak.
6. Informatika programak: Blogs. Wikis. Web 2.0
7. Abestiak.
8. Taldeko jokuak eta dinamikak.
9. Power pointen aurkezpenak.
10. Giza jantokia ikusten joango ginateke: Algortako "Hermanitas de la Caridad" (Portu Zaharrea). Abenduan egingo genuke.

"Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Ataza horiek prestatzeko formakuntza lan saio batzuk antolatuko dira eta bertan landutakoa 3.ebaluaketan zehar ikasgeletan gauzatuko da"

<p><b>EBALUAZIO-TRESNAK</b> [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p><b>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN</b> [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p><b>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK</b> [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p><b>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN</b> [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>Ebaluazio jarraia denez, irakasle ekintza guztietan egin behar da. Erljio arloan ebaluazio jarraia modu honetan ulertzen da:</p>	<p>Ikaslearen nota jartzeko hurrengo puntuak kontutan hartuko dira:</p> <p>1. KLASE- ETORTZEA Derrigorrezkoa beste guztia kontutan hartzeko.</p>

\* Unitate erdiko bakoitzean agertzen diren hasierako ariketek balio izango dute ikasleen diagnostikoa egiteko.

\* Sakontze ariketek, ariketa desberdinak izango dituzte, irakas ekintza hobetzeko, behaketa eta gogoeta eginez (formakuntza ebaluaketa).

Argitu behar dugu ikaslearen fedea ez dela ebaluatzen, pertsonal kontzientziaren intimitatea errespetatu behar du ebaluaketak eta erlijio irakaskuntzaren alderdi batzuk bakarrik ebaluatu:

a) Gelako lanetan hurrengo puntuak baloratuko dira:

- \* Informazioaren erabilera eta landuera.
- \* Edukina proposatutako eskemari egokituta egotea.
- \* Ortografiko akatsarik ez egotea.
- \* Lanak ordenatuak eta garbi aurkeztea.
- \* Ikasleen zentzu kritikoa eta sortzailea.

b) Ikaslearen koadernoak izan beharko ditu: eskatutako ariketa guztiak, debateen ondorio guztiak, amankomunean jartzen diren datuak, klaseko apunteak, pertsonal lanak...Koadernoak entregatuko da ebaluaketa bakoitzean eta kurtso amaieran.

d) Jarreraren aldetik, ikaslea apurka-apurka joango da balore batzuk jasotzen, errespetuzko elkarbizitzarako eta jarrera solidarioa eta kritikoa agertzeko. Beraz, ebaluazio prozedurak eta baliabideak hurrengo hauek izango dira:

- a.- Ikasgelan egindako ariketak dokumentalak eta pelikulak ikusi eta gero.
- b.- Klaseko koadernoaren zuzenketa.
- c.- Klaseko lanak testu idatzien gainean.
- d.- Ikaslearen behaketa ( atentzioa, partehartzea, taldeko-lanak, jarrera...).
- e.- Gaiaren ulermena eta adierazpena.
- f.- Informazioaren azterketa, laburpena, interpretazioa eta erabilera.
- g.- Ardura, ahaleginak, errespetua, talde-lana, partehartzea, tolerantzia eta sormena.

2. IKASLEAREN LAN PERTSONALA

Norberaren koadernoak landu, baita egiten diren muralak eta klaseko-lanak.

3. GELAN PARTEHARTZEA

Galderak egin, erantzunak eman, argitasunak eskatu, iradokizunak eman (irakasle zein ikasleei).

5. TALDEKO-LANA

Irakasleak agindutako talde-lanak.

6. KLASSEKO KOADERNOA.

-Nota jarriko da hurrengo puntuak kontutan hartuz:

1)-KLASEKO JARRERA: Ikasleak klasean egunero duen jarrera behaketa-koadro baten apuntatuko da, hurrengo puntuak kontutan hartuz:

a).1.-Asistentzia eta puntualtasuna:- Klasea etortzea derrigorrezkoa da. Ebaluaketa bakoitzean 3 falta justifikatu gabe izanik suspenditzen da gaia. Falta larria egiteagatik baten bat kaleratua izanez gero, falta horrek zenbatuko du notan ere, justifikatu gabeko falta moduan.

a).2.- Errespetoa:Ikaskideko begirunea (elkar ez jo, ez insultatu, ez bota gauzak, banan-banan hitz egin...), materialarekiko begirunea (Ez apurtu ezer, ez zikindu, ez bota gauzak,...) irakaslearekiko begirunea.

a).3.- Materiala ekarri eta lana egin:Klasera beti koadernoak eraman behar da eta emandako fotokopiak ere.

a).4.- Adi egon eta partehartu ahal den guztia.

a). 5.- Interesa.

a). 6.- Klaseak ez ebaki.

Puntu guzti hauek egunero aztertuko dira eta koadroan apuntatuko dira positiboak eta negatiboak.

Kenketak eta batuketak egin eta gero :

- ebaluaketa bakoitzean 10 negatibo pilatzen badira suspenditzen da gaia.
- 9 negatibotik 3 negatibora ateratzen dutenek 5 bat izango dute jarreraren.
- 2 negatibotik 0 negatibora ateratzen dutenek 6 bat izango dute jarreraren.
- Positibo 1 edo 2 ateratzen dutenek 7 bat izango dute jarreraren.
- 3 edo 4 positibo ateratzen dutenek 8 bat izango dute jarreraren.
- 5, 6 edo 7 positibo ateratzen dutenek 9 bat izango dute jarreraren.

- 8 positibo edo gehiago erantzten dutenek 10 bat izango dute jarreran.  
Jarrerako notak %50a balio izango du, gaitzuta baldin badago.  
2) KLASEKO LANA: Klasean egiten den guztia koaderno batean bilduko da. Koaderno ondo izateko egunean eramango da, garbi eta ordenaturik. Koaderno edozein momentuan eskatu ahal da nota jartzeko, beraz beti eguneratuta izan behar dute.  
Baloratuko dira lanak, ariketak eta koadernoak. Dena eginda, ondo eta informazioa landuta badago  
Gaia aprobatzeko alde batetik jarrera gaitzuta izan behar da eta bestetik lana, media egin ahal izateko.

Jarraipeneko ebaluaketa egingo da, hau da, lehenengo ebaluaketa suspendituta izanez gero, bigarrena aprobaturik biak gaitzuta dira. Irakasleak esango dio ikasle bakoitzari zer egin behar duen kasu bakoitzari.  
Gainera pasadan urteko erlijioa gelditzen bazaie, lehenengo ebaluaketa aprobaturik gero, aprobaturik izango dute.  
Notako % 50a lanen eta koadernoren bidez neurtuko da.  
Aurreko taulan esandako moduan, gaia gaitzuteko alde batetik gaitzuta izan behar dute jarrera eta bestetik lana, media egin ahal izateko. Notako % 50a jarreraren nota izango da, behaketa koadroaren bidez neurtuko dena.  
- Ez dira, orokorrean, etxerako lanak bidaliko. Baina baten batek klasean ez badu egin edo amaitu klasean egin behar zena, etxean bukatu beharko du.  
- Saiatuko gara debateak eta konkurtsoak antolatzen positiboak irabazi ahal izateko (partehartzen duenak eta besteen eritziak errespetatzen duenak).  
Ekainako 3. ebaluaketako nota jartzeko kontutan izango dugu kurtso osoan egin dena. Beraz batuko dira hiru ebaluaketako 3 notak eta gero zati 3 egingo da. Borobildu behar denez eta zenbaki osoa jarri, koma bost edo gehiago bada gorantza borobilduko da eta koma lau edo gutxiago bada beherantza borobilduko da.

**EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupezio-sistema...].**

**CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN** [medidas de refuerzo, evaluación secundaria, estrategias alternativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].

#### ANIZTASUN NEURRIAK

Ikasle bereziren bat klasean baldin badugu: heziketa behar bereziak dituena, minusbalotasun fisiko edo psikiko duena edo hizkuntz berezia behar duena....Ikastetxearen Aniztasun Atentzio Planean datorrena jarraituko da.

~Ikasgai honetan egingo dena beti Zentruaren Orientazio Sailarekin koordinatuko da eta adituen esanetara (Terapeutika Pedagogia ematen dutenak) jokatuko da.

Ikasle desberdinak dituzten interes desberdinak, metodologi pluralen bidez erantzungo da, ikasle bakoitzak bere ikasketa egoeraren arabera eraman dezan.

Programazioak izango ditu alderdi batzuk heziketa prozesuan indibidualizazioa kontutan hartzeko.

Horretarako hurrengo neurriak hartuko dira:

a. Edukinen artean, oinarrizkoak zeintzuk diren bereiztu eta zeintzuk osagarriak diren, kasu bakoitzean aproposena aplikatzeko.

b. Edukin bakoitzarentzat ariketa desberdinak proposatu.

c. Metodologi desberdinak erabili.

d. Material didaktiko desberdinak erabili, zailtasun neurri desberdinekin.

e. Interakzioa lortzeko lan talde desberdinak sortu: talde malguak eta erritmo desberdinekin. Lan taldeak ez dira beti berdinak izango, lanaren arabera modu desberdinez osatuko dira.

f. Ebaluazio erizpide bakoitzeko neurri desberdinak markatu.

#### AURREKO KURTSOA GAINDITZEKO OSAGARRI NEURRIAK.

Errefortsu neurriak jarraipen pertsonala merezi dute, lehenengo ebaluaketan irakasleak konprobatzeko ikasle horrek edukin minimoak lortu dituen ala ez.

Ikasleren batek aurreko kurtsoan Erljio Katoliko ikasgaia pendiente izan badu eta hurrengo kurtsoan ez bada ikasgai horretan matrikulatu, lantxo bat egin beharko du edukin minimoei buruz, ikasgai hori gaindi dezan.

#### OHARRAK / OBSERVACIONES

--



**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA**

IES Uribekosta BHI Bigarren Hezkuntza Institutua

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y  
CULTURA**

Instituto de Educación Secundaria IES Uribekosta BHI